ermua

UDAL ALDIZKARIA
**REVISTA MUNICIPAL**




# Ermua PARTICIPATIVA | Ermua PARTE-HARTZAILEA

**Marzo 2026ko martxoa**

# Ermua guztion artean eraikitzen dugu
# Construimos Ermua entre todas y todos
## Herritarren parte-hartzeari eta aurrekontuei buruzko honen ibilbide-orria
## Hoja de ruta sobre participación ciudadana y presupuestos


- **Ermua guztion artean eraikitzen dugu** 3
  **Construimos Ermua entre todas y todos**
  Hiri parte-hartzailearen gure ikuspegia
  Nuestra visión de ciudad participativa
- **2025eko aurrekontu parte-hartzaileak: kontuak ematen ditugu** 4
  **Presupuestos participativos 2025: rendimos cuentas**
  Gardentasuna eta herritarrekiko konpromisoa
  Transparencia y compromiso con la ciudadanía
- **Herritarren parte-hartzearen emaitzak** 5
  **Resultados de participación ciudadana**
  Herritarren inplikazioari buruzko zifrak eta datuak
  Cifras y datos de implicación vecinal
- **2025eko jarduera garrantzitsuenak** 6
  **Actuaciones más relevantes de 2025**
  Zuen botoen arabera gauzatutako proiektuak
  Proyectos ejecutados gracias a vuestros votos
- **2026ko Aurrekontuak: Ermuak erabakitzen du** 7
  **Presupuestos 2026: Ermua decide**
  Prozesu parte-hartzaile berria abian
  Nuevo proceso participativo en marcha
- **2026an boto gehien jasotako proiektuak** 8
  **Proyectos más votados para 2026**
  Udal-aurrekontuan sartutako proposamenak
  Las propuestas incluidas en el presupuesto municipal






## Ermua guztion artean eraikitzen dugu

**A**uzokide agurgarriak:

Aurrekontu parte-hartzaileak gure tokiko demokrazia indartzeko tresna baliotsuenetako da. Kontua ez da bakarrik udal aurrekontuaren zati bat zertan inbertitu erabakitzea, sakonagoa den zerbait baizik: entzutea, hitz egitea eta Ermuko etorkizuna kolektiboki eraikitzea.

Aurkeztutako proposamen bakoitzak, emandako boto bakoitzak eta gauzatutako proiektu bakoitzak beren ingurunea hobetu nahi duen herritar aktibo baten konpromisoa islatzen du.

Zuen inplikazioari esker, gaur jarduera berriak ditugu, benetako premiei zuzenean erantzuten dietenak: hobekuntzak espazio publikoetan, irisgarritasun-jarduerak, berdeguneak sustatzea eta gure udalerria leku atseginagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa bihurtzen duten beste ekimen batzuk.

Orrialde hauetan aurkezten dugun kontu-ematea gardentasun- eta erantzukizun-ariketa da. Gobernatzeak erabakitzea dakar, baina baita ere argi eta garbi azaltzea nola kudeatzen diren baliabide publikoak eta zein puntutan dauden onartutako proiektuak.

Ermua aurrera doa bere herritarren eskutik doanean. Aurrekontu Parte-hartzaileak frogarik onena dira elkarrekin lan egiten dugunean komunitate osoari mesede egiten dioten emaitzak lortzen ditugula.

Eskerrik asko zuen partaidetzagatik eta Ermua egunero eraikitzen jarraitzeagatik.

## Construimos Ermua entre todas y todos

**Q**ueridas vecinas y vecinos:

Los Presupuestos Participativos se han consolidado como una de las herramientas más valiosas para fortalecer nuestra democracia local. No se trata únicamente de decidir en qué invertir una parte del presupuesto municipal, sino de algo más profundo: escuchar, dialogar y construir colectivamente el futuro de Ermua.

Cada propuesta presentada, cada voto emitido y cada proyecto ejecutado refleja el compromiso de una ciudadanía activa que quiere mejorar su entorno.

Gracias a vuestra implicación, hoy contamos con nuevas actuaciones que responden directamente a necesidades reales: mejoras en espacios públicos, actuaciones en accesibilidad, impulso a zonas verdes y otras iniciativas que hacen de nuestro municipio un lugar más amable, inclusivo y sostenible.

La rendición de cuentas que presentamos en estas páginas es un ejercicio de transparencia y responsabilidad. Gobernar implica decidir, pero también explicar con claridad cómo se gestionan los recursos públicos y en qué punto se encuentran los proyectos aprobados.

Ermua avanza cuando lo hace de la mano de su gente. Y los Presupuestos Participativos son la mejor prueba de que, cuando trabajamos juntas y juntos, conseguimos resultados que benefician al conjunto de la comunidad.

Eskerrik asko por vuestra participación y por seguir construyendo Ermua cada día.

Beatriz Gámiz
Alkatea/Alcaldesa

# 2025eko Aurrekontuak | Presupuestos 2025




Azken urteotan, Ermuak entzute aktiboan eta erantzunkidetasunean oinarritutako hiria egiteko modua finkatu du, aldizkako partaidetza-prozesuen bidez.

Gaur, 2025ean egindako jardueren berri eman nahi dizuegu. Jarduera horiek 2025eko aurrekontuak egiteko partaidetza-prozesuaren ondoriozko lehentasunei erantzuten diete. Agiri honek ibilbide horren emaitzak aurkezten ditu orain: herritarrek lehentasunezkotzat jo dituzten eremuak, zer proposamen egin diren, zeinek jaso duten babes handiena eta nola antolatu diren udal-ekintzan sartzeko.

Emaitzak ez dira azken puntu gisa planteatzen, hurrengo urratsak erabakitzeko, gardentasuna indartzeko eta parte hartzeko mekanismoak fintzen jarraitzeko oinarri partekatu gisa baizik.

En los últimos años, Ermua ha consolidado una manera de hacer ciudad basada en la escucha activa y la corresponsabilidad a través de procesos participativos periódicos.

Hoy queremos rendir cuentas sobre las actuaciones llevadas a cabo a lo largo del 2025 y que responden a las prioridades resultantes del que proceso de participación para la elaborar los presupuestos del año 2025. Este documento presenta ahora los **resultados** de ese recorrido: qué ámbitos han sido considerados más prioritarios por la ciudadanía, qué propuestas se han formulado, cuáles han recibido mayor respaldo y cómo se han ordenado para su incorporación a la acción municipal.

Los resultados no se plantean como un punto final, sino como una **base compartida para decidir los siguientes pasos**, reforzar la transparencia y seguir afinando los mecanismos de participación.

# Parte-hartzearen emaitzak
# Resultados de la participación















# Jarduera garrantzitsuenak
# Actuaciones más relevantes







| LEHENTASUNAK/ PRIORIDADES | € | JARDUERAK/ACTUACIONES |
|---|---|---|
| Irisgarritasuna eta mugikortasuna<br>Accesibilidad y movilidad | 385.000 | San Antonioko Igogaiua. Ascensor San Antonio |
| Espazioak eta eraikinak berroneratzea<br>Regeneración de espacios y edificios | 465.950<br>40.000 | Santa Ana auzoan drOp Bº Santa Ana<br>Petanka pista \| Petanca |
| Zerbitzuen eta herritarren arreta hobetzea<br>Mejora de los servicios y dela atención ciudadana | 75.000<br><br>400.000<br>25.500<br>Colaboración | Garbiketa plana . Plan de choque limpieza.<br>Argiak hobetzea II. Mejora del alumbrado II<br>Auzoko bulegoa -Santa Ana-Oficina de barrio<br>NANaren Zerbitzu mugikorra \| Servicio móvil DNI |
| Enplegua eta ekintzailetza<br>Empleo y emprendimiento | 903.740<br>66.250<br>28.500<br>44.280<br>14.100 | Enplegu-planak. Planes de empleo<br>IoT Izarra Lab<br>Udalgaztedi<br>Emprendimiento \| Ekintzailetza<br>Fomento STEAM Sustatzea |
| Ingurumenaren iraunkortasuna<br>Sostenibilidad | 18.147<br><br>22.500 | Deskontaminazio-panelak Euria Tech pilotua<br>Paneles descontaminantes Piloto Euria Tech<br>Hiri Agenda Txiki |
| Parte-hartzea<br>Participación | 48.500 | Aurrekontu parte-hartzaileak adin guztietan<br>Presupuestos participativos todas las edades<br>Haurren kontseilua + Kanpaldia<br>Consejo de a infancia + Acampada infantil |











# 2026ko Aurrekontuak | Presupuestos 2026
# Ermuak erabakitzen du | ERMUA decide




## Herritarren parte-hartzearen emaitzak Resultados de la Votación Ciudadana

Guztira **1.406 pertsonak** parte hartu dute datorren udal aurrekontuko baliabideak zertan inbertituko diren erabakitzeko bozketan . Adin-talde bakoitzak bere beharrei hobekien erantzuten dien proposamena aukeratu du, guztira **250.000 euroko** zuzkidurarekin.

Un total de **1.406 personas** han participado en la votación para decidir en qué se invertirán los recursos del próximo presupuesto municipal. Cada grupo de edad ha elegido la propuesta que mejor responde a sus necesidades, con una dotación conjunta de **250.000 euros**.

**6–13 urte/años**

988 boto / votos

Uda osoan aire zabaleko zinema eskaintzea eta bideojoko eta robotika tailerrak antolatzea

Ampliar a todo el verano el cine al aire libre y organizar talleres de videojuegos y robótica

30.000 €

**14–29 urte/años**

298 boto/ votos

Gazteentzako topagune publikoak egokitzea: chill-out guneak, parrilak eta estalitako espazioak

Acondicionar zonas públicas de encuentro para jóvenes: chill-out, parrillas y espacios cubiertos

50.000 €

**30–64 urte/ años**

100 boto/ votos

Rekaldeko igerileku naturala berreskuratzea, aisialdirako guneekin, hiri-baratzeekin eta berdeguneekin

Recuperar la piscina natural de Rekalde con zonas de esparcimiento, huertos urbanos y zonas verdes

85.000 €

**65+ urte/años**

20 boto/ votos

Valerioko terrazarako erabilera berriak zehaztea eta egokitzapen-proiektua idaztea

Definir nuevos usos para la terraza de Valerio y redactar el proyecto de adecuación

85.000 €

**Ermuak erabakitzen du**
**Ermua decide**



Errekaldeko igerilekua berreskuratzea

Recuperación piscina Recalde

- 2026ko Hirigintzko aurrekontuan
  Presupuesto de urbanismo: 85.000€



Chill out gunea

- 2026ko Hirigintzako aurrekontuan
  Presupuesto de urbanismo: 50.000€



Valerio Terrazaren erabilera eta proiektua.

- Usos y proyecto Terraza Valerio
- 2026ko Hirigintzako aurrekontuan
  Presupuesto de urbanismo: 85.000€



Udako zinea eta tailerrak

- Cine de verano y talleres
- 2026ko Kulturako aurrekontuan
  Presupuesto de Cultura: 30.000€

**Eskerrik asko parte hartzeagatik eta belaunaldi guztientzako udalerri hobea lortzeagatik!**

**¡Gracias por participar y hacer posible un municipio mejor para todas las generaciones!**

# 2027ko AURREKONTUAK

## Zurekin batera!

## ¡Te esperamos!

# PRESUPUESTOS 2027

www.ermua.eus